


Etxean erabiltzen den hizkuntza (>= 5 urte). EAE eta Nafarroa

Definizioa	
Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako biztanleek etxean zein hizkuntza erabiltzen duten jasotzen du adierazle honek.	
Hedadura	
Euskal Autonomia Erkidegoa eta Nafarroa.	
Aldagaiak eta kategoriak	
<ul style="list-style-type: none"> • Eremu geografikoa: EAE, Nafarroa, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa • Erabiltzen den hizkuntza: <ul style="list-style-type: none"> - Euskara - Euskara eta gaztelania - Gaztelania - Beste bat 	
Azpi-adierazleak (gurutzaketak)	
Etxean erabiltzen den hizkuntza adinaren eta sexuaren arabera	
Iturriak	
EAEko eta Nafarroako Mapa Soziolinguistikoak	
Iturrien ezaugarriak	<p>Biztanleria eta Etxebizitzen Estatistikan bildutako datuak dituzte oinarritzat eta Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleria eta Nafarroa osoa hartzen du aintzat.</p> <p>Mapa Soziolinguistikoa estatistika ofiziala da, eta 020702 kodearekin dago jasota Euskal Estatistika Planean.</p> <p>EAEko Mapa Soziolinguistikoak hiru aldagai aztertzen ditu: euskara-gaitasunaren bilakaera (1981eko zentsuan txertatutako aldagaia), biztanleriaren lehen hizkuntza (1986. urtean txertatutako aldagaia) eta etxeko erabilera (1991. urtean gaineratutako aldagaia). Hortaz, Euskal Autonomia Erkidegoan euskararen bilakaera berri izateko ikuspegi zabala ematen digu: hizkuntza gaitasunaren kasuan hogeita hamar urtekoa, lehen hizkuntzaren kasuan hogeita bostekoa eta etxeko erabilerarenean hogeikoa.</p> <p>Nafarroan lehen aldiz 1991n neurtu ziren euskara-gaitasuna, lehen hizkuntza eta etxeko erabilera. Ondoren, 1996an, 2001ean eta 2011n ere neurtu ziren. Nafarroan hogeitaz urteko bilakaera ikus daiteke.</p>
Iturrien arduradunak	<p>Euskal Autonomia Erkidegoan datuen ardura EUSTAT erakundearena da, eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak datu horien ustiaketa egiten du.</p> <p>Nafarroan datuen ardura Nafarroako Estatistika Institutuarena da, eta Euskarabideak egiten du datu horien ustiaketa.</p>
Hasierako datua eta maiztasuna	<p>Lehenengo datua EAE eta Nafarroan: 1991koak dira lehenengo datuak.</p> <p>Maiztasuna EAE: Bost urterik behin egiten da.</p>



	Maiztasuna Nafarroan: Bost urterik edo hamar urterik behin (1996an, 2001ean eta 2011n) egiten da.
Datuak osatzeko metodologia	<p>Euskal Autonomia Erkidegoan 2011ko datuak osatzeko metodologia mistoa erabili da, hau da, honako iturri hauek konbinatuz osatu da Zentsua:</p> <ul style="list-style-type: none">-EUSTATEko Biztanleen Erregistroa-Administrazio-jatorriko informazio estatistikoa-INERen Biztanleriaren Zentsua (inkesta) <p>2011ko Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsua egiteko erabili den metodologia 2006ko Biztanleriaren eta Etxebizitzen Estatistika osatzeko erabili zen lehen aldiz. Aldaketa metodologiko handia izan da. Europako hainbat estatistika-institututan (Suediakoan, Finlandiakoan edo Herbehereetakoan, esaterako) erabiltzen den metodologia da, eta datuen ustiaketa aitzindaria erabiltzen du, jatorri administratiboko fitxategietatik abiatuta. Euskarari buruzko datuak osatzeko erabili diren administrazio-jatorriko iturriak honakoak izan dira:</p> <ul style="list-style-type: none">• Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila: Selektibitateari buruzko datuak, LOGSE tituluaren erregistroak, hizkuntza-ikasketen tituluaren erregistroa eta Hizkuntza Eskola Ofizialeko ikasleen datuak, euskara modalitateari dagokionez.• Herri Ardularitzaren Euskal Erakundea (HAEE/IVAP): funtzionarioen euskara-ikasketak (Eusko Jaurlaritzakoak eta haren erakunde autonomiadunetakoak, foru-aldundietakoak, toki-erakundeetakoak eta Euskal Herriko Unibertsitatekoak).• Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzeko Erakundea (HABE): euskaltegi-sare osoari buruzko ikasleen datuak
Informazio osagarria	
Argitalpenak eta txostenak	<p>http://www.euskadi.eus/informazioa/ikerketa-soziolinguistikoak/web01-a2lingu/eu/</p> <p>http://www.euskarabidea.es/euskara/euskara-nafarroan/datu-sozio-linguistikoak</p>
Galdesorta	<p>http://eu.eustat.eus/estadisticas/tema_25/opt_1/tipo_8/ti_Biztanleriaren_eta_etxebizitzen_zentsuak/temas.html</p>